

1/2019 INSTRUKZIOA, 2019ko MAIATZAREN 30ekoa, IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAK ETA UPV/EHUko GERENTEAK ELKARREKIN EMANDAKOA, UPV/EHUK KONTRATU TXIKIAK KUDEATZEKO ERARI BURUZKOA.

1/2018, 2/2018, 3/2018 eta 4/2018 instrukzioek kontratu txikiak tramitzeko prozedura bat ezarri zuten —xede horretarako zenbait antolakuntza jarraibide eta argibide zehatz emanda— aintzat hartzen zituena 9/2017 Legearen 118. artikulua ezarritako aurreikuspenak (azaroaren 8ko Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, SPKL, aurrerantzean), SPKLren berrogeita hamalagarren xedapen gehigarri berritik eratorritako mugak barne (uztailaren 3ko 6/2018 Legearen –2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea– azken xedapenetako berrogeita laugarrenak sartu zuen xedapen gehigarria).

2018ko ekainaren 11n, kontratu txikien kudeaketa erraztu behar zuen modulu bat garatzeko enkargua eman zitzaion Unibertsitate Lankidetzaren Bulegoari (OCU), UNIVERSITAS XXI-ECONÓMICO tresna informatikoaren esleipendunari. Hori hala izanik, funtzionaltasun berri bat sortu da kontratazio txikia kudeatzeko, aukera ematen duena kontsulta parametrikoen bidez SPKLren mugak betetzen diren egiaztatze, ahaztu gabe zein den helburua: hots, ahal bezain pronto, gai izan dadila tresna hori –edo haren ordez arituko den beste edozein– guztiz automatikoki aritzeko kontrol lanean (ekitaldi ekonomikoaren, kontratu motaren eta operatzaile ekonomikoaren kontrola) eta dagozkion txostenen sorkuntzan.

Nolanahi ere den, hainbat erakundek kontratazio publikoari buruz egin dituzten adierazpenetatik eta azterlan doktrinaletatik ondoriozta daitekeenez, ikerketa proiektuetarako sortzen diren unitate organikoak unitate funtzional independentetzat har daitezke finantzaketa lotuko gastua exekutatzan dutenean.

Testuinguru horretan, UPV/EHUri gagozkiolarik, 2018ko abenduaren 10ean Lege Zerbitzuak txosten bat argitaratu zuen ikerketa proiektuak unitate funtzional bereiz kontsideratzeko aukerari buruz (SPKLren 101. artikuluan 6. atalak aipatzen dituen unitateak).

Txosten horrek dio ikerketa proiektuetarako sortutako unitate organiko iragankorrak (Gestio Ekonomikoaren Araubide Orokorren 1.2 artikuluan definituak - UPV/EHUren Aurrekontuen III. liburukia) har daitezkeela unitate funtzional bereizitzat, ezaugarri hauek dituztelako:

- 1) funtzio espezifiko bat dute,
- 2) Errektorearen 2018ko apirilaren 19ko erabakiaren ondoren, autonomia dute, ikerketa proiektu zehatzari lotutako kontratazio txikiari dagokionez, eta
- 3) finantzaketa espezifikoa dute, dagokion unitate organiko zehatzari esleitua.

Aurrekoaren ondorio gisa, txostenak dio aplikagarriak direla SPKLren 118.1 artikulua kontratu txikiarentzat ezartzen dituen gehienezko muga kuantitatiboak, ez unibertsitatea bere osotasunean harturik, aipatutako unitate organiko iragankor bakoitza harturik baizik, kontuan izanik beti unitate funtzional bereiz horiek izenpetutako kontratuek existentzia erreala, independentzia eta indibidualtasuna eduki beharko dituztela unibertsitatearen gainerako kontratuei dagokienez, eta ezin izango direla unitate horiek erabili kontratazio deszentralizaturako organo huts gisa, ezta kontratu bat modu antijuridikoan zatikatzeko ere.

Aurtengo urtera etorrira, 2019/02/09ko BOEn, 3/2019 Legegintzako Errege Dekretua, otsailaren 8koa, argitaratu zen, Zientzia, Teknologia, Berrikuntza eta Unibertsitatearen alorreko presako neurriei buruzkoa, hamar neurri biltzen dituena. Horietako batean, aldatu egiten da jada aipatu den SPKLren berrogeita hamalagarren xedapen gehigarri berria, helburua izanik erraztea eta bizkortzea proiektu zientifikoetarako materialen eta tresnen erosketa, halako moldez, non ikerketa zentroek eta unibertsitateek zerbitzu eta horniduren kontratu txikiak exekutatu ahal izango dituzten, 50.000 euroren zenbatekora arte, hornitzaile berarekin eta unitate desberdinentzat, nahiz eta urtean muga horiek gainditu kontratuen batura osoaz (adibidez, laborategiko materiala erostea unibertsitate beraren bi projektutarako). Ministerioaren oharrean jasotako informazio hori ez dago hain argi onartu den arauaren testuan (interpretazio ahalegin handia eskatzen du, bat ez datorrena funtzio arauemaile orok berez behar lituzkeen argitasun eta zehaztasunarekin), eta zalantza juridikoa sortzen du. Ondorioz, besteak beste, CRUEk argibideak eskatu ditu.

Azkenik, duela gutxi, Kontratazioaren Erregulazio eta Ikuskapenerako Bulego Independenteak (OIRESCON) onartu egin du eta argitaratu kontratu txikiei buruzko 1/2019 Instrukzioa, 2019ko otsailaren 28koa (BOE 2019/03/07). Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak eta Estatutuen Garapenerako Zuzendaritzak —biak ere Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu saillekoak— txosten bateratua egin dute instrukzio horretaz, eta haien ondorioa izan da dokumentua ez dela loteslea eta interpretaziotik harago doala, legean aurreikusita ez dauden eskakizunak ezartzen baititu.

Horren guztiaren ondorioz, azken txosten horren edukia eta ondorioak bere osoan onartuz eta bere eginez; kontuan izanik aurretik aipatu den Lege Zerbitzuaren txostenak adierazitakoa eta gaiak sortzen dituen zalantzak, aintzat harturik UPV/EHUko errektorearen 2018ko apirilaren 19ko erabakia, zeinaren bidez aldatu egiten baita 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehaztekoa eta eskumenak eskuordetzekoa), esleituta dituzten eskumenak baliatuz, Ikerketaren arloko Errektoreordeak eta UPV/EHUko gerenteak nahitaez bete beharreko instrukzio hau ematen dute.

1) APLIKAZIO EREMUA

1. Instrukzio hau aplikatuko zaio kontratu txikien tramitazioari, kontratu txikitzat hartuta honako balio zenbatetsi hauek dituztenak: obren kasuan, 40.000 eurotik beherakoa (BEZik gabe); hornidura edo zerbitzuen kasuan, 15.000 eurotik beherakoa (BEZik gabe); eta ikerketarako bakarrik diren hornidura eta zerbitzuen kasuan, 50.000 eurotik beherakoa (BEZik gabe), aurrerago azalduko diren baldintzen arabera.
2. Hala ere, datu base berezitetan sartzeko eta argitalpenen harpidetzarako kontratuak kontratu txikietarako ezarritako arauekin bat egin ahal izango dira, edozein dela horien zenbatekoa, betiere erregulazio harmonizatuko kontratuen multzokoak ez badira (SPKLren xedapen gehigarrietatik bederatzigarrena).
3. Salbuespenez, finantzen kudeaketa onaren printzipioak aplikatuz eta eraginkortasun eta efizientziaren alde, zerbitzu arrazoiengatik egin behar diren 200 eurotik beherako gastuak kontratu txikien prozeduratik kanpo geratuko dira. Horrelakoetan, organikoaren arduradunak aitorten bat sinatu beharko du gastua benetan beharrezkoa dela behar bezala justifikatuz eta zerbitzuko arrazoiengatik premiazkoa dela adieraziz, eta aitorten hori arduradun horrek gorde beharko du gainerako dokumentuekin batera.

4. Kontratu txikien prozeduratik kanpo geratuko dira instrukzio honen I. eranskinean zerrendatzen diren gastuak, kontratu txikien izaera juridikoa ez izateagatik.
5. Esparru hitzarmenetan oinarritutako kontratuak, kontratu txikietarako zehaztu diren zenbatekoen mugen barruan daudenean ere, kontratu txikien prozeduratik kanpo geratuko dira, eta kasuan kasuko esparru hitzarmenean zehazten denaren menpe egongo dira.

2) MUGAK

SPKLren 118.3 artikuluan esaten da ezinezkoa dela operadore batek kontratu txiki bat edo gehiago izenpetzea, gainditzen dutenak, banaka edo batera hartuta, artikulua horren lehenengo apartatuan aipatzen den kopurua. Muga horiek honela aplikatuko ditugu:

- a) **Eremu subjektiboa:** ikerketari lotutako hornidura edo zerbitzu kontratuetan, aplikatuko da kasuan kasuko unitate organikoari dagokionez, instrukzio honetako hirugarren atalean zehazten diren salbuespenekin. Gainerako kontratuetan, mugak aplikatuko dira unibertsitateko organiko guztiei dagokienez, ikerketakoak kenduta, instrukzio honetako hirugarren atalean zehazten diren baldintzetan.
- b) **Eremu objektiboa:** mugak aplikatuko dira kontuan hartuta esleitu behar den kontratuaren mota bereko aurretiko kontratu txikiak, hots, aurretik esleitutako obra, zerbitzu edo hornidura kontratuak, multzo bakoitza bere aldetik hartuta. Esaterako, operadore bati berari esleitu ahal izango zaizkio: 40.000 euroko (BEZik gabe) balio zenbatetsitik beherako obra kontratu bat; gehi 15.000 euroko (BEZik gabe) balio zenbatetsitik beherako zerbitzu kontratu bat; gehi 15.000 euroko (BEZik gabe) balio zenbatetsitik beherako hornidura kontratu bat.
- c) **Denbora eremua:** aurretik esleitutako kreditu txikiak finantzatu dituzten kredituak zein urteri egozten zaizkion, urte horrexerri aplikatuko zaizkio mugak. Kontratua urte batean baino gehiagotan banatuta egikaritzen bada, haren iraupena hamabi hilabetera heldu barik, mugak aplikatuko dira urte bakoitzari egotzitako zenbatekoaren gainean.

3) MUGA OROKORREN SALBUESPENA: KONTRATU TXIKIAREN MUGA ZABALTZEA IKERKETA, EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA BERRIKUNTZAREN ARLOKO JARDUERETARAKO

1. SPKLko xedapen gehigarrietatik berrogeita hamalagarrenari jarraituz, zabaldu egingo da UPV/EHUK hornigai eta zerbitzuak eskuratzeko egiten dituen kontratu txikietarako muga, eta, beraz, balio zenbatetsia 50.000 eurokoa edo txikiago (BEZ gabe) izan ahalko da, betiere, helburua ikerketa, ezagutzaren transferentzia edo berrikuntzaren arloko jarduera baterako bada, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen babesean. Horren barne egongo dira hornigai eta zerbitzuetako kontratuak, beren gastua ondorengo funtzionalekin lotutako 10 digituko organikoaren kargura kontabilizatzen bada:

021 – Ikerkuntza jarduerak

024 – Ikerkuntzaren Zerbitzu Orokorrak

025 – Diru-sarrerei lotutako ikerkuntzarako gastuak

026 – Ikerkuntzarako jarduera, ULoren 83 artikulua

- 027 – Unibertsitateko liburutegia ikerkuntzaren laguntza gisa
- D2A – Ikerketan laguntzeko azpiegiturak eskuratzea
- D2B – Nazioarteko doktorego tesiak egitea bultzatzea
- D2C – Beharrezko baliabide bibliografikoak ematea UPV/EHUko zientzialariek beren ikerlana egin dezaten.
- D2D – ERC grants-etan parte hartzea bultzatzea
- D2E – Euskara Institutua (80.000) eta Kriminologia Institutua (2.400)
- D2F – Nazioarteko I+G Proiektuen Bulegoa indartzea
- D21 – UPV/EHUko ikertaldeak eta ikertzaileen arteko lankidetzak bultzatzea
- D22 – Ikertaldeei laguntza ematea, nazioartean lehiazeko
- D23 – Talentuak erakartzeko estrategia zehaztea
- D24 – Ezagutza ardatzak dinamizatzea
- D25 – Beste programa batzuetatik datozen doktore talentudunak sartzeko bultzatzea
- D26 – Europar Batasuneko Ikerketarako Oinarrizko Programako ikerketa proiektuak
- D27 – Ikertzaileen prestakuntza kontratuen programa bultzatzea (PIF eta PID)
- D28 – Sailen inplikazioa sutatzea ikerketa jardueran
- D29 – Ikerketako mugikortasunerako eta egonaldi-erako programak bultzatzea
2. Era berean, aurreko aurreikuspenaren barnean daude Ikerketaren arloko Errektoreordetzako hornigai eta zerbitzuetako kontratuak, baldin eta bigarren posizioan "S" duten 4 digituko organikoaren kargura kontabilizatzen badira (Ikerketako Zerbitzu Nagusiak- SGIKER).
 3. Instrukzio honen aurreko atalari jarraituz, gastuak aipatutako organikoen kargura kontabilizatzen direnean, SPKLko 118.3 artikuluko mugak kasuan kasuko organikoari dagokionez aplikatu eta egiaztatuko dira.
 4. Aurreko zenbakietan adierazitakoa ez da aplikatuko zerbitzu orokor eta azpiegitura zerbitzuetarako hornidura eta zerbitzu kontratuetan, zeinahi ere izanik gastua egotziko zaion aurrekontu saila. SPKLren berrogeita hamalagarren xedapen gehigarriak bere aplikazio eremutik kanpo uzten dituen kontratuak dira, eta horientzat, unibertsitatearen aurrekontuaren organikoen multzoa da izanera orokorrez ezarritako gehienezko muga kuantitatiboa (balio zenbatetsia 15.000 eurotik beherakoa, BEZ gabe) betetzeak erreferentziatzat hartu behar duen esparrua, arestian aipatu diren ikerketako organikoak kenduta.
- Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako zerbitzu orokor eta azpiegitura zerbitzuetako gastutzat hartuko dira ikerketa jarduera zehatzarekin lotura zuzenik ez duten gastu guztiak, antolakuntza, egitura edo finantzaketa alorrekoak barne, era berean ordaindu beharko lirakeenak, nahiz eta ikerketa jarduera ez egin (ezin izango dira egotzi jarduera horren gainean hainbanatutako kostu gisa).

4) PROZEDURA, EGIAZTAPENAK ETA BALIOZKOTZEAK

Kontratu txikiak tramitatzeke prozedura izango da «UNIVERSITAS XXI-ECONÓMICO» tresnan ezarrita dagoena. Bertan, kontratazio eta erosketen atalera joanda eta hor kontratu txikien azpiatalean sartuta, modu grafiko eta ulerterrazean aurki daitezke urrats guztiak azaldurik, eskaria egiten denetik hasita eta behar den dokumentazioa sortu arte.

Honako neurri hauek hartuko dira egiaztatzeke kasuan kasuko mugak errespetatzen direla:

1. Aurreko atalean aipatutako Ikerketako organikoen alde aurreko egiaztapena (zerbitzu orokorrak eta azpiegitura izan ezik). «Consultas paramétricas contratos menores» izeneko fitxara jo beharko da eta honako bide hau egin: «Contratos menores», «Otros», «Paramétricas almacenadas»; azken horren barruan, 5 zenbakidun kontsulta parametrikoko biltegitratua exekutatu behar da, «orgánicas de investigación» izeneko, datu hauek sartuz: (i) Ekitaldi kodea, (ii) Organiko kodea, (iii) Hornitzaile kodea eta (iv) Kontratu mota kodea.
2. Gainerako organikoen alde aurreko egiaztapena. Urrats berberak egingo dira, 6 zenbakidun kontsulta parametrikoko biltegitratua exekutatu, «menores no investigación» izeneko, datu hauek sartuz: (i) Ekitaldi kodea, (ii) Hornitzaile kodea eta (iii) Kontratu mota kodea.

5) IKERKETAKO ZERBITZU NAGUSIAK (SGIKER).-

SPKLren xedapenak ez dira aplikatu behar UPV/EHUko sail, institutu eta ikastegietako ikertaldeek unibertsitateko Ikerketako Zerbitzu Nagusiei zerbitzu teknikoak jasotzeke eta ekipoak erabiltzeke egindako eskaeretan. Tarifarik ordaindu beharrik badago, organikoen arteko birbanaketaren bidez ordainduko dira.

6) KONTRATU TXIKIAREN EZOHIKOTASUNA

Instrukzio honetan adierazitakoak ez du inolako eraginik kontratazio txikiaren izaera guztiz ezohikoan. Soil-soilik erabili behar da aurrekusi gabeko beharrei erantzuteke, unean uneko beharrak, noizbehinkakoak, zehatzak eta premiazkoak, beste modurik erabil ezin daitekeenean. Beraz, kontratazio txikira jo aurretik, kontratazio baliabide arruntak erabili behar dira: hala nola prozedura ireki sinplifikatuak, oinarriko akordioak eta kontratazioa arrazionalizatzeko beste sistema batzuk.

7) ERANTZUKIZUNAK

SPKLn zehaztutakoa ez betetzeak edo behar bezala ez ezartzeak ondarezko erantzukizuna ekar diezaike, bai eta diziplina erantzukizuna ere, gastuaren arduradunari (SPKLko xedapen gehigarrietatik 28.a), eta gauza bera gastua egitean ez badira kontuan hartzen instrukzio honetan ezarritako aurreikuspenak. Arlo horretan, gogorarazi beharra dago indarrean dagoela UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 1994ko martxoaren 4an hartutako erabakia, kontratazioari buruzko arauak ez betetzeak dakartzan erantzukizunei buruzkoa.

8) ONDORIOAK

Instrukzio hau ondorioak sortzen hasiko da 2019ko ekainaren leian, eta hortik aurrera UPV/EHUn egiten diren kontratu txiki guztiak bideratuko beharko dira, batez ere, «UNIVERSITAS XXI-ECONÓMICO» tresnak kontratu txikiak kudeatzeko daukan atalaren bitartez. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera aipatutako atal hori derrigorrez erabili beharko da.

Data horretatik aurrera indarririk gabe geratuko dira gerentziaren instrukzio hauek: 1/2018, apirilaren 10ekoa; 2/2018, ekainaren 27koa; 3/2018, uztailaren 26koa; eta 4/2018, irailaren 14koa.

Leioa, 2019ko maiatzaren 30a



José Luis Martín González
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA



Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUKO GERENTEA

I. ERANSKINA

- a) Atxikitze kontratutzat jo daitezkeen kontratuei, lehiari lotu gabeko zerbitzu eta horniduretarako direnei, egotzi beharreko gastuak.
- b) Ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabean ganean egindako salerosketa, dohaintza, truke eta errentamendu kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak —ordenagailu programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura edo zerbitzu kontratutzat joko dira eta—. Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare legediaren pean egongo dira.
- c) Liburu zientifikoen erosketa. Liburuok, betiere, jabetza gorpuzgabeko ondasuntzat hartzen dira Jabetza Intelektualari buruzko Legeak (apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bateratua) eta ekainaren 22ko 10/2007 Legeak, Irakurketari, Liburuari eta Liburutegiei buruzkoak, ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, Liburutegiko erabiltzaileen eskura jartzeko liburu elektronikoen erabilera lizentzien erosketa ez da kontratu txikien prozeduratik salbuetsita egongo prozedura horren mugetara egokitzen denean, ez eta legokiokoen prozeduratik —SPKLren 168. artikuluren a) hizkiaren 2. paragrafoan aurreikusitako publizitaterik gabeko prozedura negoziatua, hala badagokio— mugok gainditzen baldin baditu.
- d) Zerbitzu publikoren bat emateko harreman juridikoak, baldin eta erabiltzaileek, zerbitzu hori jaso ahal izateko, guztiei aplikatu beharreko tarifa, tasa edo prezio publikoa ordaindu behar badute (baimenak, lizentziak, ibiak eta antzeko kontzeptuak). Atal honetan sartzen dira liburutegien arteko mailegari dagozkien gastuak eta ur hornidurari dagozkionak (ontziraturako urari dagozkionak izan ezik).
- e) Museoetara, parke zientifikoetara eta antzekoetara joateko sarrerak.
- f) UPV/EHUK jabetzan dituen ibilgailuen azterketa teknikoa (IAT).
- g) UPV/EHUtik kanpoko langileak izanik, taxiz, metroz, trenez, autobusez edo antzeko lokomozio bideak erabiliz egindako joan-etorriei dagozkien gastuak, baita autobide ordainsariak eta aparkaleku kostuak ere, bidaia poltsetan edo zerbitzu ordainetan sartu ezin badira.
- h) Garraio enpresek kudeatutako aduana gastuak.
- i) Gastu juridikoak eta auzietakoak. Bertan sartuta egongo dira unibertsitatea aldeetako bat den auzi, jardun edo prozeduretako gastuak, epaiketa gastuak barne (abokatu eta prokuradoreen zerbitzu sariak eta minutak salbu).
- j) Isunak eta zigorrak.
- k) Elkarteko kuotak.
- l) Zerbitzu kontratuak, helburutzat dituztenak 66100000-1etik 66720000-3ra arteko CPV erreferentzia zenbakiak dituzten finantza zerbitzuak.
- m) Zerbitzu kontratuak, helburutzat dituztenak 79995000-5etik 79995200-7ra arteko eta 92000000-1etik 92700000-8ra arteko CPV erreferentzia zenbakiak dituzten sorkuntza eta

interpretazio artistiko eta literarioko eta ikuskizunetako zerbitzuak, honako zenbaki hauek dituztenak izan ezik: 92230000-2, 922310000-9 eta 92232000-6.

- n) Sektore publikoko zentroetan gauzatuko diren irakaskuntza jarduerak (administrazioko langileen prestakuntzarako edo hobekuntzarako ikastaroak) eskaintzea helburu duten kontratuak, betiere jarduera horiek mintegiak, mahai inguruak, hitzaldiak edo antzeko jarduerak direnean eta pertsona fisikoek egindakoak direnean.
- o) Aldizkarietako argitalpenak eta argitalpen horiei dagozkien tasen ordainketak.
- p) Kongresuetako, jardunaldietako, mintegietako eta antzeko jardueretako izen emateak, ordainketak zuzenean antolatzaileei egiten zaizkienean. Ez dira salbuespen honetan sartuta egongo bitartekariak (bidaia agentziak edo antzeko zerbitzuak ematen dituzten enpresak) tartean direla ordaindutako izen emateak.
- q) UPV/EHUtik kanpoko langileak izanik, Unibertsitate egoitzetako ostatu gastuak, UPV/EHUK antolatutako ekitaldiei dagozkienak.

Aurreko zerrenda adierazpenezkoa baino ez da. Hortaz, gerora emango diren instrukzioen bidez eguneratu ahal izango bada ere, horrek ez du inola ere eragotziko unean-unean indarrean egon daitezkeen arauekin bat datozen bestelako salbuespenak zuzenean aplikatzea.